

# LARRE BERRIAK HEGOAMERIKAKO LUR ELKORRETAN

Xipitri Tapia

**Kolombiarrek, hegoamerikar gehienek antzera, behi-haragia nahi dute jateko. Baina, aziendar entzako larre onak oso urri dira Hegoamerikako leku tropikaletan. Herri hauetako pobrezia izan da nekazari txikiak nekazaritzarako lurrak garbitzera bultzatu dituen. Hegoameriketean lanean ari diren nekazal ikerlariek erronka bikoitz bati aurre egin behar diote. Alde batetik esnea eta haragia lortu nahi dira eta bestetik lur elkorrek nekazaritzarako lur bihurtu nahi dira.**

Hegoamerikako populazioa hazteak, haragi- eta esne-behar handiagoa sortuko du eta beraz, abeltzainek garrantzi handia har dezakete. Kolombiako familiarik pobreenak ere, beren irabazietatik laurdena gutxienez haragi eta esnetan gastatzen dute.

Azken urteotan arazoa larriago egin da jendea kanpotik hirietara joan delako. Migrazioak, Hegoamerikan, garestitu egin ditu hirien inguruko nekazaritza-lur onak.

Kolombian, aldiz, nekazariak beren lur pobreetan bizitzen jarraitzen dute. Hiriko bizitzari uko egin eta lautadetak, sabanetak edo baso tropikaletako lurrak emankorrako bihurtzen ari dira. Finantzaioa da nekazariak honelako lekuetara bultzatzen dituen, zeren eta lurrak oso pobreak bait dira eta beraz, ongarrikantitate handiak behar dira. Nekazari pobreek baso tropikaletako zati batzuk erre egiten dituzte, lurrak materia organikoa izan dezan. Baina ongarririk hiru nekazaritza intentsiboan urtebetean agortzen da.

Hala ere, sabana nahiz baso tropikaletako lurrak gero eta gehiago erabiltzen dira nekazaritzan. 1950ean adibidez, Kolombiako lurrik hoberenak dituen Cauca bailarako lurraldeak azien-darentzako janariaren % 7,4 hornitzen zuen eta, 1985ean % 2,2ra jaitsi zen portzentaia hori.

Orain dela 10 urte Kolombiako nekazaritza-ikerketarako instituzioak CIATekin (Nekazaritza Tropikalerako Nazioarteko Zentruarekin) batera, lautadak eta basorik gabeko lurrak hobetzeko planari ekin zion. RIEPT izeneko erakundea sortu zen orduan. Bertan 20 naziotako 78 erakundek parte hartzen dute eta helburua Hegoamerikako lur tropikalak larre bihurtzea da.

CIATek bere programaren barnean duen ideia nagusienetakoa laborea eta belarra elkartzea da, hau da, hauek txandak ereitea. European normala den txandakatze hau, Hegoamerikan berria da bertako nekazariarentzat. Laboreak, belarrak behar duen nitratoa hornitzen du hasieran. Gero landare hondakin edo animalia hondakinek iharduera mikrobiologikoari eragiten diote eta horrela pixkanaka-pixkanaka fauna eta floraren arteko menpekotasuna sortzen da.

Laborea/belarra bikoteak hektareako eduki dezakeen azienda, belarrak bakarrik eduki dezakeena baino handiagoa da, hots, lehenengo egoeran lau animalia eduki badaitezke, bigarrenean hiru.

Orain arte aipatutako arazoei beste batzuk erantsi behar zaizkie. Nekazari txikiak okupatu dituzten lurretan mamioka, baberruna, artoa, kafea eta toma tea hazten dira.

Berez, lurra gorria da, aluminio eta burdin oxidoaren eraginez. Bi substantzia hauek pozoitsuak dira landareentzat. Lur hauetan ez dago fosfororik eta nitrato-kantitate txikia dute. Lur elkorren eskalan neurtuta, txarrenen aurrekoak dira zientzilariek diotenez.

Gainera lur hauek higadura handia jasan dute. Beraz, higadurari oztopoak jarri behar zaizkio eta hori lortzeko belar-geruza izatea da bidea. Baina nekazariak baliabide ekonomikoak urri dituztenez, belar-geruza ongarririk gabe lortu beharko dute.

Guzti hau dela eta, CIATeko ikerlariek labore/belarra bikotearen alde apostua egin dute eta horretarako espezierik egokien bila ari dira. Belar-arloan hiru belar-mota daude lehian (*Brachiaria decumbens*, *Brachiaria humidicola*, *Brachiaria dictyoneura*) eta labore-arloan bi labore-mota (*Desmodium ovalifolium* eta *Arachis pintoi*). Azkenean badirudi luraren arabera, irtenbide mistoetara jo beharko dela, zeren eta batzuk besteak baino ongarririk gehiago behar bait dute.

Alderdi ekonomikoak hautespena mugatuko badu ere, bertako oreka ekologikoa gehiegi ez baldintzatzea espero dezagun.

